

En cambio en la jornada de clausura, con motivo del homenaje a Germán Landazábal en el I Centenario de su nacimiento, pudimos saludar con alegría a la representación del Ayuntamiento de Araya, cuna de Landazábal. Nos consta que en el próximo otoño esta localidad alavesa homenajeará al hijo del pueblo. ¡Enhorabuena!

Sin género de dudas, la mayor angustia sufrida en los preparativos de MUSIKASTE 84 ha tenido lugar por la incertidumbre de poder contar en la orquesta de cámara con los profesores necesarios. Nunca se hacen las gestiones a última hora. Pero a veces se derrumban a penúltima hora, como este año. La acumulación de festivales musicales en el País Vasco en torno a las fechas de MUSIKASTE hace que quienes se han comprometido con la organización, no puedan cumplir su palabra por obligaciones «superiores». ¿Es creíble que muy pocos días antes del recital de músicos de vanguardia se buscase angustiosamente un violín y un viloncello en la Orquesta del Conservatorio de San Sebastián, Orquesta Sinfónica de Euskadi, Bilbao, Pamplona, Bayona, Zaragoza, Burdeos, Barcelona, París? Al fin en Madrid se encontró la solución, pero con un dispendio económico, que merece la pena no recordarlo.

MUSIKASTE 85 tendrá lugar del 20 al 25 de mayo. ¿Es mucho pedir a otras organizaciones que, por el bien de todos, se alejen de estas fechas?

Balance final.— Tras la celebración de MUSIKASTE 84, puede presentarse el siguiente balance de realizaciones en el total de sus doce ediciones:

- Dos mesas redondas sobre problemática de música vasca.
- Catorce ponencias sobre temas de musicología vasca.

—Obras interpretadas: 475, pertenecientes a 120 compositores vascos de todos los tiempos.

- Estrenos mundiales: 95.
- Estrenos locales: 114 (cifra presumiblemente muy superior).
- Coros que han intervenido: 60.
- Solistas vocales: 35.
- Solistas instrumentales: 31
- Pequeños conjuntos instrumentales: 15
- Orquestas sinfónicas: 6
- Otros: 15.

Los intérpretes que registran las cifras son casi en su totalidad del País Vasco. En ocasiones las circunstancias exigen contratar a intérpretes foráneos.

¿Y MUSIKASTE 85?.— De nuevo nos encontramos con una larga lista de conmemoraciones:

II Centenario de la muerte del Conde de Peñaforida.

I Centenario del nacimiento de los siguientes compositores: José M^o Ugarteburu, Antonio Amundarain, Angel de Apraiz, Gaspar de Arabolaza, Agustín Azcúnaga, Juan Bautista Elustiza, Manuel Gaizna, Tomas Giménez, Félix Zabaleta.

Entre todos ellos destaca la figura y la obra del Conde de Peñaforida. Hasta ahora se ha trabajado profundamente en este patriarca de la cultura vasca. No así en la influencia suya y de la Real Sociedad Bascongada del País en el campo de la música. Confiamos en que ésta pueda ser la ocasión de clarificar el tema.

ZU ERE ERRENTERRIARRA

MIKEL UGALDE



Agian Errenterian jaio, hazi eta bizi den horietakoa zaitugu. Beharbada inguru samarrean bizi zaren horietakoa. Urrutirago bizi den errenteriar horietarikoa izango zera halabeharrez. Australian. Ameriketara. Parisen edo Sorian zaudena. Har zazu errenteriar batek beste bati eginiko agur beroa.

Errenteriar izate horrek baditu berekin beste herritarrekiko lotura bereziak, batez ere festetan behin ere baino sendoagoak nabarmentzen direnak. Festa giroan ala gabe, zer gerta daitekeen ere batek bai ahal daki, hemen doakizu berriketa saio hau, nor bere herriaz hitzegiteak berriketa arriskua berekin bai dakar.

Baina ez pentsa kanpokoek gutaz hitzegiten dutenean. zenbaitean behinik behin, jarrera zuzenik erakusten dutenik. Badute halako morbosidaderik Errenteriaz hitzegi ala idazten dutenean. Cambio 16 eta gisa horretako aldizkarietan itxuragabeki erabili izan dute gu larrutu bitarteko onik izan. Herriko kulturagintza baino inoizko barrikada gogozkoagoa dute. Gertaeraren bat aipatzerakoan, ondoren irrifar maltzurrez zera esango dizute: «horrek ere Errenterian behar zuen». Eta guzti honek mindu eta sumindu egiten gaitu, alde batetik Errenteria gurea delako, eta gure herria besterik delako.

GURE NORTASUNA

Aldizkari honen orrialdeak gainbegirakadaz ikustea aski duzu Errenteria besterik ere badela antzemateko. Bada ilusio handiz lanik asko egiten duen jenderik, herriaren izena eta izana jasotzen duenik. Ezagutzen ditugu, eta ezagutzen dituzte. Herri pobrea gara ondasunez, horra hor Udalaren zorrak lekuko. Denbora gutxian itxuragabe hazi zitzaigun herria, eta lotsagabeki galdu dugu industria. Langabeziaren arazoa inon baino larriagoa da gure artean. Alderdi honetatik etorkizuna ez dago batere garbi, iluna baino ilunagoa dagerkigu.

Halaz ere, kulturaren ikuspegitik aberatsak gara. Toki gutxitan egingo da hemen hainbat lan kulturagintzaren arloan. Andra Mari Korala, Eresbil, Oinarri, Ereintza, bere ekintza eta guzti, Fomento, Ikastola bera... Luze joko luke hemen egiten den guztia aipatzea. Gure artean, bestalde, badugu errenteriar ospetsurik. Horra hor, besteak beste, Mitxelena maisua lekuko.

Sarritan euskaldunok ez gara gure buru famatzearen zale, baino inoiz ordagoren bat jo beharko genukeelakoan nago.

ADIBIDE GISA

Orain artean esandakoaren adibide bezala, horra hor, oraintsu, Maiatzean, ospatu den zenbait gertakizun, goi goi maileko ospakizun. Laburki baino ez ditugu aipatuko, orrialdeotan bertan berri zehatzik ezagutzeko zoria izango bait duzu.

Eskulangintzaren azoka. Ereintzak eskulangintzaren eremua goz landu du. Urtez urte, bere azoka martxan jarri du, eta gero eta erantzun hobea jaso. Ez zuen erakusketa gisa jokatu, ez zen azalpen soila, egiazko azoka prestatzeari ekin zion. Honi eskerrak, artisauek pausu handirik eman dute, lanak erakustarazteko zoria izan dute, eta salmentak ugaldun ahal izan dituzte. Honek lanbide berriak zabaltzeko egokiera eskaini diete. Katalogoaren argitaratzeak ere mesede handia egin diete. Herri industriatu honetan izan du arrakastarik azokak. Bada hortik zer eginik, etorkizunik. Kulturgintzaren ondorio bat izan da. Galzorian zegoen zenbait eskulan zuzpertz egin da. Durangoko liburu azoka Euskal Herri osoan ezaguna den bezala, eskulangintzaren azoka eta Errenteria loturik ikusten ditugu Ereintzari eskerrak.

Musikaren izena eta izana hor daude aurrez aurre. Horra hor Eresbil, horra hor Oinarrri abestaldeak lortu duen garaitzapena. Zorritzarrez, Errenteria ustez ongi ezagutzen duen jendeak ez ditu horrelako ekinaldi nagusiak aintzakotzat hartzen. Ez dio axolarik. Egindako lanak, ereindako haziak emango du fruiturik.

Ez nuke, gaurko honetan. Xenpelar Bertso Paper Sariketa aipatu gabe utzi nahi. Bestek ematen dizu berri zehatzik neronek egin dezakedana baino hobeto. Xenpelar, bertsogintza eta Errenteria berriro lotzeko bidea eskaini digu Aurrezki Kutxa Probintzialak. Garrantzi handiko ospakizuna benetan. Izan duen arrakasta ez da txantxetako izan.

Eta guzti hori, Errenterian, gure sorterrian, Maiatzean gertatu da. Adibide gisa aipatu dugu.

MUSIKAREN BIDETATIK

Betidanik izan da gure herria musikazalea. Hemengo txistulari bandak, abestaldeak, musikariak, izen handikoak izan dira. Lehenxago Andra Mari eta bere inguruko lana aipatu dut. Baina besterik ere gogoan dut une honetan. Txistularitzaren sailean, esate baterako, gogoangarria Olegario Izagirrerren lana, Ereintzaren zilar-zezteetan

eskaini ziguten emanaldia. Ereintzako bandak ez du atzean gelditu nahi, eta irabazi du saririk Donostiako txistu banda lehiaketan.

Beste izen bat ere aipatu nahi nuke hemen. Errenteria Musikalarena, alegia. Lekuonaren zuzendaritzapean, hor dihardute, kontzertu emanaldi bikainak eskaintzen. Musika lantzea berez meriturik baldin badu, har eta gaztetxoak musikaren bideetatik abiaraztea, guzti horrekin talde bat sortu eta musika zaletasuna indartzeak, zer esanik ez. Chapeau primo. Bejondeizutela irakasle eta ikasle guztiok.

Badakit zenbait ekintza aipagarri ahazturik, edo, utzia izango dutela. Ez dut kronika zehatzarik egin nahi izan. Barnean sarritan pentsa ohi duguna adieraztea baino ez dut egin. Errenteriaz esaten dena ez du beti gure izanaren, izaeraren, berri ongi jasotzen.

GEROARI ITSAROPENEZ BEGIRA

Lehorte urterik izan dugu. Geroak hobeak izango dira. Kulturgintzak halako krisi eta kinka ezagutu du. Lehenago, diktadura garaian esate baterako, nolabait erantzun egin behar eta, zenbait kultur lan indartzeari ekin ohi zitzaion. Gerra ondorengo antzerki taldea ez zen antzerki arte gogoak eraginda sortu, euskararen indartu beharra zegoen gogoan guztion gogo bihotzetan.

Transizioan berriz, politikagintzarako emana handiagoa izan zen. Talde politikoetan zer egin handia zegoen, indartu egin behar ziren, eta kezkatuak zegoen zenbait hortik abiatu zen. Kulturgintza bigarren mailakotzat edo bilakatu zen.

Gauzak bere onera badatoz. Bataren eta bestearen egitekoa hobeto bereizten da. Bada zerbait. Egungo giroak hoberik ekarriko du. Eta ikastolako fruituak jasotzen hasiak gara jadanik.

Horrela bada, Australian, Ameriketara, Parisen edo Sorian, zauden horrek, ez pentsa Errenteria zenbait egunkarik edo aldizkarik dioena soilik denik. Herri bat gara, ez hain polita, ez hain aberatsa, ez nahi bezain euskaldun, baina gurea da.

Agur t'erdi.

LA PUBLICIDAD EN NUESTRAS VIEJAS REVISTAS

Esteban Los Santos

Quien desee conocer la variedad de la industria o la diversidad del comercio de Rentería en el primer tercio del siglo, encontrará sin duda un importante auxiliar en la publicidad contenida en las revistas locales de la época. Sin embargo, no nos proponemos en este corto trabajo analizar algún aspecto de la vida económica de nuestro pueblo en la época aludida. Sencillamente vamos a repasar desordenada y caprichosamente algunos números de las revistas «Rentería» y «Oarso» publicados entre 1922 y 1933 para comentar, sin más pretensión que la de reseñar algunos aspectos curiosos, los anuncios publicitarios que encontramos en sus páginas.

Lógicamente, uno de los temas que más llama la atención es el de los precios. En las páginas del anciano número de «Rentería» correspondiente a 1922 que hemos manejado, vemos que en la relojería de Celso Vázquez podían adquirirse «despertadores desde 8 pesetas garantizados». Tres años más tarde, el restaurante más prestigioso de la localidad ofrece «cubiertos desde seis pesetas» y al mismo precio se anuncia un «exquisito champán nacional», a la venta en un almacén de vinos y licores de la calle Santa María.

Deleitándonos en hojear «Rentería» de 1928 vemos que por el módico precio de 26.500 pesetas podía comprarse el «STUDEBAKER PRESIDENTE, 8 cilindros State Sedan siete asientos», sin olvidar que en las mismas páginas «El Barato», de Magdalena 12, nos ofrecía «trincheras a medida» al precio de 30 pesetas.

En Oarso de 1930 —primer número de la primera época de la revista— un dentista donostiarra, valiente él, va y nos confiesa su tarifa de precios: extracciones sin dolor a 3 pesetas, empastes a 10 y dentaduras completas a 180.

Si fijamos nuestra atención en los textos de los anuncios, la mayoría nos parecerán largos, observaremos que se tiende a describir minuciosamente el artículo o el servicio ofrecido y que cierto aire de ingenuidad es común a todos ellos.

Así, por ejemplo, nos encontramos en «Rentería-1928» con el anuncio de la churrería de Ignacio Fernández. Se trata de un «establecimiento de nueva instalación. Situado en la Plaza Principal antigua casa de Chiquito, su emplazamiento inmejorable es indudable complemento a la excelencia de servicio y trato ordinario usuables (?) en él». Y la cosa continuaba en otro párrafo.

En la misma línea, vemos en «Rentería-1922», en el anuncio de Panier, se dice que «a la orilla del Río Oyarzun se alza este lindo Restaurant, punto de cita de la gente elegante veraniega que, a la sombra de los plátanos de sus jardines, se solaza y divierte». Y más adelante se señalaban otras bondades del establecimiento. En el mismo número de esta revista nos encontramos con la enigmática publicidad de una peluquería redactada en la forma siguiente: «¿Quiere usted escuchar los conciertos que da la Banda Municipal? Acuda, pues, a afeitarse y a cortarse el pelo a la peluquería de Juan Olazaguren».